

Berriketan



**Badator, hutsik egin gabe,
Debako Antzerki Astea**



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com
Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
 @adatsileak



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi

pentsioa



Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com



ARENA BAR

IZERBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Odontologoa
MAITENA ARRIZABALAGA

HORTZ KLINIKA

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz

Odontologoa
NORA UNZETABARRENETXEA

mn

943 830 424 - 653 921 712



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com

Tel: 685 703 843



BERRIKETAN 295

2024ko maiatza

Azaleko irudiaren egilea:
Goitibera antzerki konpainia

AURKIBIDEA



6 ALBISTEAK
Deba-Palestina Herri
Ekimenak Elkartasun
Eguna antolatuta du
ekainaren 1erako



12 ELKARRIZKETA
Ongizate emozionala eta
autozainketa lantzeko
tailerrari buruz solasean
Saioa Garmendiarekin



20 ARGAZKI GALERIA
Aurtengo Debarren
Egunak lagatako
irudiekin osatutako
bilduma ikusgai



22 ALBISTEAK
Guillermo Andonegi,
Garbiñe Iriondo, Aitor
Oñederra eta Goaz taldea
Ostolaza Sarien jabe



24 ELKARRIZKETA
Ekainaren 7an eta 8an
egingo den Debadaba
Festaz mintzatu dira
antolatzaileak



28 AGENDA
Datozen asteotan
egingo diren jarduerak
eta ekimenak jaso
ditugu atal honetan

Zuhatz **euskara**
elkartea

Berriketan

ARGITARATZAILEA
Zuhatz Euskara Elkartea
HELBIDEA
Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)
TELEFONOAK
943 19 13 83 / 632 04 33 22
HEDABIDEAREN E-MAILA
berriketan@zuhatz.com
ELKARTEAREN E-MAILA
koordinatzailea@zuhatz.com
ERREDAKZIOA
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas
KOORDINATZAILEA
Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA
Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA
Iñaki Elosua
MAKETAZIOA
Maku Oruezabal
TIRADA
1.400 ale
MAIZTASUNA
Hilabetekaria
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
LEGE GORDAILUA
SS/246/200
ISSN: 2171-7656

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatz.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



Debako liburutegia: aukera berriak, erronka berriak

XXI. mendeko liburutegiei aukera berriak ireki zaizkie. Egungo liburutegi eredua liburu-gordailu hutsa baino gehiago da. Liburutegien Lankidetzarako Kontseiluak (CCB) idatzi ditu haur eta gazteen liburutegi-zerbitzuek izan beharreko jarraibideak, eta liburutegietan irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak antolatzea sustatzen du: "ipuinen ordua, ipuin kontalarien maratoiak, tailerrak eta jarduera praktikoak...". Umeei zuzendutako ekintzak liburutegian antolatzeak, bada, ez du liburutegia ludoteka bihurtzen. Liburutegi izaten jarraitzen du.

Liburutegian ipuin ilustrazio tailerra antolatzeko proposamena egin diogu udalari, ekintza antolatzeaz Liburutegia Denontzat Taldea arduratuko litzatekeela azalduz, eta kostuen kargu eginez; baina, momentuz, ateak itxi zaizkigu, liburutegiko estoreak edo gortinak itxi egin dira. XXI. mendeko liburutegiak eskaintzen dituen aukera eta erronka berriei helduko al die Debako liburutegiak?

Ez dugu ludoteka nahi liburutegian, ezta Txiki Txoko edo antzekorik ere. Liburutegian tailerrak antolatzeak ez du liburutegia ludoteka bihurtzen. Umeei liburutegia erabiltzea nahi dugu, gainerako erabiltzaileek erabiltzen duten bezala: irakurketarako, lanak egiteko, marrazteko, bideoak ikusteko edota denbora-pasak egiteko, esaterako.

Haurren irakurketa-ohiturak txikitatit sortzea eta sendotzea da IFLA/UNESCOK liburutegi publikoari buruz egindako manifestuan jasotako funtsezko misioetako bat.

(Irakurri artikulua osoa ondorengo estekan:
labur.eus/liburutegiadenontzatartikulua)

Liburutegia Denontzat Taldea

Bertako herritar bezala aparkatu nahi dugu

Herriko TAO sistema legeztatzen duen ordenantzen arabera, 5'5 m-tik gorako ibilgailuek ezin dute erdigunean aparkatu, soilik 5. gunean (Artzabal). Orain gutxi arte, debeku hori ez zen aplikatzen, eta "bertako" 5'5 metrotik gorako ibilgailuek gainontzeko "bertakoek" bezala aparkatzeko baimena zuten. Hainbat bizilagunen kexa abiapuntu, udalak egun batetik bestera ordenantza aplikatzeko erabakia hartu zuen. Arazoa? Ibilgailuek jendearen ibilbidea oztopatzea omen. Udalaren argudioen arabera: 1) Legea bete egin behar da. 2) Aparkalekuen neurria 5 m-koa izanik, ibilgailu luzeagoek ezin dute bertan aparkatu. 3) Udala ez dago aparkaleku alternatiborik eskaintzera behartuta.

Honen aurrean, legea fundamentuzko argudioetan oinarritu beharko litzatekeela uste dugu. Horrela izan ezean, arazoa aztertu eta herrian egon badauden alternatibak bilatu beharko lirateke: badaude espaloirik gabeko baterian aparkatzeko guneak, baita linean aparkatzeko marra jarraituak ere (banakako aparkalekuak bereizten ez dituztenak). Zergatik ez digute horietan aparkatzen uzten? Udaletik alternatibarik eskaintzeko derrigortasuna ez egonik ere, harrigarria da denok ordezkaten gaituen alkatetzatik horrelako erantzunak jasotzea eta planteatutako proposamenak kontuan ez hartzea.

Honenbestez, azpimarratu nahi dugu gure ibilgailuek herriko hainbat lekutan ez dutela oztopatzen besteek aparkatzea, eta leku batzuetan ez dutela jendearen ibilbidea kaltetzen. Beraz, udalak egindako irizpide aldaketa errefusatu eta erdibideko neurriak badaudela defendatzen dugu. Guztiok ordaintzen ditugu gure ibilgailuari dagozkion zergak eta "bertako" txartela. Batzuk lanerako ibilgailu gisa erabiltzen dugu furgoneta eta hau Artzabalen izateak ez digu egunerokotasuna leuntzen. Ez gatoz Debara oporretara. Debako herritarrek gara eta herritar bezala aparkatu nahi dugu. Besterik gabe.

Garazi Arizaga, Ibon Basterretxea eta beste hainbat herritar





ANTTON AIZPURUA

"Bigorexikoak"

Pandemiaz geroztik txirrindulariak, korrikalariak, crossfiteroak eta surflariak baino ez ditut inguruan. Eskumuturra baino erloju handiagoak darabiltzate, aplikazioetan denborak, errepikapenak, dietak eta gainontzekoak erregistratzen dituzte, baina beren buruetan eta ahoetan ere besterik ez dela geratzen ematen du. Izandako lasterketez, datozen olatuez, asteburuko irteerez, azken lesioez edo entrenamenduez bakarrik hitz egiten dute, gainontzeko gaiak betiko ahaztu izan balituzte bezala. Bigorexikoak!

Pazientzia galtzen hasi naiz dagoeneko. Ez dut ulertzen jendeak nola garatu duen ondo sentitzearekiko halako mendekotasuna, ez baita arrazoizkoa, logikoa edo zentzuduna sasoiko sentitzeagatik alaia sentitzea, indartsuago sentitzeagatik galbana txikiagoa izatea gainontzekoetarako, ahaleginaren ahaleginez hobekuntzak nabaritzeagatik autoestimu edota konfiantza gehiago izatea. Ez dut ulertzen. Gorroto puntua dudalako edo izango da, baina darabiltzaten janzkera horiek ere... Egiten duten kirola egiten dutela, horretarako arropa egokiak darabiltzate, errepiderako maillot ikusgarriak, mendirako motxila arinak, beti hain txukun, hain konbinatuta...

Etsigarria izan behar da sofatik altxatzeko nahia izan eta arin-arin altxatzea, igogailuaren zain egon beharrik gabe eskaileretatik aise ibiltzea, etxera garagardorik edan gabe bueltatzen jakitea. Begira badirela oraindik ere topatzeke ditudan zaletasunak, baina bigorexiko hauena... Batzuetan ez ditut modak ulertzen.

Uler bedi ironia.

"Etsigarria izan behar da sofatik altxatzeko nahia izan eta arin-arin altxatzea, igogailuaren zain egon beharrik gabe eskaileretatik aise ibiltzea, etxera garagardorik edan gabe bueltatzen jakitea"

TaxiAlain Deba

LIZ-ZK.: 3

WiFi

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

MAIEDER
hortz klinika

Eider Sampayo
Maialen Linazasoro

Inplanteak eta kirurgia	Zarautz
Periodontzia · Endodontzia	Kale Nagusia 9-1
Estetika eta zuriketak	943 13 32 69
Protesiak · Odontopediatria	722 81 56 60
Azido hialuronikoa	dental@maieder.com
Aho-aurregi eta ATM alterazioak	www.maieder.com

Deba-Palestina Herri Ekimenak Elkartasun Eguna antolatu du ekainaren 1erako



Palestinako herriari babesa adierazteko asmoz, Elkartasun Eguna ospatuko dute ekainaren 1ean Deban. Egun horretarako hainbat ekintzaz osaturiko egitaraua aurkeztu dute Deba-Palestina Herri Ekimeneko kideek eta, azpimarratu dutenez, elkartasuna eta festa uztartuko ditu hitzorduek. "Guretzat ez da festa bat bakarrik izango. Hitzorduek kontzientziazioa eta sentsibilizazioa ditu helburu eta, aldi berean, Palestinako herriaren minarekin bat egiten dugula adierazi nahi dugu". Plaza Zaharrean egingo dituzte ekintza guztiak eta, azaldu dutenez, "orain arte baino jende gehiagorengana heltzeko asmoz, "adin guztietako pertsonen zuzendutako" ekintza sorta prestatu dute herriko eragile, elkarte eta boluntario ezberdinen artean. "Gatazkak hartu duen neurria ikusita, beharrezkoa iruditu zaigu Deban ere halako elkartasun egun bat antolatzea".

11:00etan emango diote hasiera egitarauari, *Ez gara zenbakiak* erakusketaren muntaketarekin eta, ondoren, Debako Erraldoien txanda izango da. "11:30ean egingo diegu harrera plazan eta gurekin geratuko dira jardunaldi osoan, Palestinako ikurak soinean hartuta". 12:30ean

hasita, ipuin kontaketeak, bertsoak, antzerkiak eta zuzeneko musikak ere izango dute presentzia egitarauan.

Goiz osoan, gainera, marrazki tailerra egingo dute, Uxue Sanchoren gidaritzapean. "Palestinaren gaia ardatz hartuta, umeei kartulinetan marrazkiak egiteko aukera izango dute. Egindako marrazki guztiak euskarri handi batean itsatsiko ditugu gero, ondoren plazan ikusgai jartzeko asmoz. Horrez gain, norbere izena arabieraz idazteko tailerra ere izango da, Rauwan-en eskutik".

Horma-irudi bat ere margotuko dute, Willy Berasaluzeren laguntzarekin. "Denon artean margotuko dugu murala eta emaitza herriko txokoren batean betiko jarrita lagatzea da asmoa". Gaineratu dutenez, salmenta postua ere izango da plazan: "Palestinako ikurak eta txapak egongo dira salgai, baita janari palestinarra eta freskagarriak ere".

14:30erako iragarri duten ekitaldi bereziarekin emango diete amaiera eguneko jardueri. "Komunikatu bat irakurri eta, jarraian, plaza inguratuko dugu elkarri eskutik helduta". Egun osoan, halaber, Palestinarekiko elkartasuna "modu aktiboan" adierazteko eskatu dute, horretarako herritarrei etxeetako leiho eta balkoi guztiak "elkartasunez eta Palestinako ikurrez betetzeko" gonbidapena eginez.

Hitzaldia maiatzaren 30ean

Egitaraua, bestalde, maiatzaren 30erako antolatu duten *Palestina: Gizatasun krisia* hitzaldiarekin osatuko dute. Barbara Ruiz Balzola UNRWArean Euskadiko delegatuak eta Mohamed Farajallah aktibista palestinarrak parte hartuko dute solasaldian; 19:00etan izango da, Kultur Elkartean. "Barbarak eta Mohamedekin baina hobeto kontatuko digute Palestinan gertatzen ari dena. Horrelako kontakizunak beharrezkoak direla iruditzen zaigu".



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



ANE BASTIDA

Ikusleon ardura

Jakina denez, azken bolada honetan ahozko literaturak garrantzia galdu du. Gero eta guraso gutxiago ikusten dira gure aitona-amonek egiten zutena egiten, ipuinak kontatzen. Zergatik ari da galtzen hain aberasgarria den ohitura hori? "Aspertuta nago!". Sakelakoa. "Telesaio bat ikusi nahi dut!". Telebista. Esaldiek osagai berberak dituzte: pantailak. Gero eta etxekide gehiago ikusten dira pantaila baten aurrean. Estalki horien artean, gure bizitzaren muinera sartu den munstro ikaragarria dago, telebista izenez ezagutzen dugun tramankulua.

Etxe guztietan horrela ez bada ere, oraindik ere etxe askotan leku garrantzitsua du telebistak. Zenbat irakurle oheratzen dira ipuin bat irakurri eta ipuin hori etxekoei kontatu ondoren? Orain, afalosteko telesaioa ikusitakoan oheratzen gara. Honekin ez dut esan nahi telebista guztiz itzali behar denik, baina kontuan izan behar dugu horrek eman eta kentzen diguna. Mezu oker asko jasotzen ditugu, eta telebistako emakume aurkezleekin gertatzen dena adibide bat da. Gehienak gazteak dira eta, adin batera helduta, kamera aurrean lan egiteari uzten diote; beste aurkezle gazteago batzuek hartzen dute beren tokia. Ez genuke jokabide diskriminatzailerik hori onartu beharko, profesional hobeak izan litezkeenak itxuragatik baztertzaren direlako.

Telebista tresna probetxugarria da, egoki erabiltzen jakinez gero. Bere aurrean ematen dugun denborak ez luke gure denbora librearen heren bat baino gehiago izan behar. Praktikara eramatea, ordea, ez da lan erraza, lehenengo gizartea eragin negatiboez kontzientziatu beharra baitago. Gogoratu, beraz, telekomandoak telebista itzaltzeko ere balio duela. Horren ordez, ipuinak irakurtzea eta irakurritakoa besteekin partekatzea aukera paregabea izan daiteke.

"Zenbat irakurle oheratzen dira ipuin bat irakurri eta ipuin hori etxekoei kontatu ondoren? Orain, afalosteko telesaioa ikusitakoan oheratzen gara"



ekoðenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.
 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Telf.: 943 191 818



1960ko uztailaren 31n Punta-puntako musikariak

1960ko uztailaren 31n organo berri bat inauguratu zuten Debako parrokian, eta ekitaldi hartan izan ziren hainbat lagun ikus ditzakegu goiko irudian, Jesus Guridi eta Pablo Soroazabal musikari entzutetsuak tartean direla. Ziur aski, Hilario Allicak egin zuen argazkia, orduko Hotel Egañako terrazan. Pedro eta Fernando Aizpurua anaiak ere agertzen dira bertan; lehena Valladolideko katedralako kanonigoa eta organista zen, eta bigarrena koadjutorea, organista eta koru zuzendaria Debako parrokian, baita Tolosako Leidor abesbatzaren sortzailea ere zenbait urte beranduago.

Irudian, zutik eta ezkerretik eskuinera: Iñaki Lete, Paco Lazcano, Mugica jauna (organoaren egilea), Anes Arrinda (Debako parrokoa), Fernando Aizpurua (parrokiako apaiz laguntzailea) eta Jose Ignacio Urbiet. Eserita: Juan Urteaga (konpositorea eta organista), Pablo Soroazabal, Jesus Guridi eta Pedro Aizpurua.

Alex Turrillas Aranzeta


ASKETA, S.L.
 ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
OFICINAS Y EXPOSICIÓN:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net
ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)


K21
 KALITATEA
 Empresa Registrada Nº: 2/05/049
 NIVEL 2


Bar LOREA
 "Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

Debako eta Itziarko hamarnaka lagun izan dira aurten ere Herri Urratsen



Herriko hainbat gurasok eta Zuhatza Euskara Elkartek elkarlanean antolatutako autobus zerbitzua baliatuta, Debako eta Itziarko hamarnaka lagun izan ziren maiatzaren 12an Senperen.

Hasieran zirimiri pixka bat egin arren, eguraldia lagun izan zuten aurtengo hitzorduan, iaz ez bezala,

eta milaka herritar hurbildu ziren Senpereko lakura, Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko jaialdira.

Herritarrek emandako erantzunarekin "oso pozik" azaldu dira Seaskako kideak, eta aurten bildutako dirua Beskoitzeko (Lapurdi) ikastola berria eraikitzeko izango dela gogorarazi dute.

Euskararen Plan Estrategikoa osatzeko lanean jarraitzen dute

Datozen hamar urteetarako oinarriak ezarriko dituen Euskara Plana egiteko prozesu parte-hartzailean murgilduta jarraitzen du Debako Udalak. Herrian zein herritarren artean euskararen erabilera indartzen eta zabaltzen jarraitze adu helburu, "etorkizunean, hizkuntza aldetik, Deba herri euskalduna izan dadin".

Ildo horretan, Euskara Planak galdera erabakigarri bati erantzun nahi dio: "Nolakoa izatea nahi dugu euskararen erabilera Deban hamar urte barru?". Etor-kizunerako beharrezkoak diren hobekuntzak identifikatuz, egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzeko diseinatutako ekintza zehatzak definitu nahi ditu planak.

Edukia osatzeko helburuz, bi lantalde eratu ziren udalerrian: sentsibilizazio taldea (norbanakoek eta Zuhatza elkarte kideek osatua), eta transmisio-sozializazio taldea (gazteekin zerikusia duten taldeek, guraso elkarteek, aisialdi eragileek... osatua).

Plana amaitzeko azken fasean daude orain, eta azken bilerak ekainaren hasieran egingo dituzte. Ondoren, plana guztiz osatuta dagoenean, herritar guztiei irekitako aurkezpen saioa egingo dute.

Aurten 161 haurrek parte hartuko dute Kolorez Blai udaleku irekietan

Uztailaren 1ean hasiko dira Debako Udalak eta Zuhatza-Kolore Anitz Aisialdi Taldeak elkarlanean antolatutako euskal udalekuak, HH5etik LH6ra bitarteko haurrei zuzenduta.

Antolatzaileek jakinarazi dute izena epe barruan eman duten haur guztiak onartuak izan direla.

161 partaide izango dira guztira: uztailaren 1etik 12ra egingo den lehen txandan 77 umek parte hartuko dute, eta hilaren 15etik 26ra bitartean egingo den bigarren txandan, aldiz, 84k.

Lantaldea bederatzi begiralek osatuko dute eta proiektua Sara Goikoetxeak koordinatuko du.

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneraiaturlan@iturlan.com



**A. Esnaola
P. Echeverria**

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ez. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808

@pyadent

Maiatzaren 31n egingo den paella txapelketan 92 gaztetxok parte hartuko dute

Aurtengoan ere "harrera beroa" egin diote herriko guraso talde baten ekimenez antolatutako paella txapelketari. Antolakuntzako kideek aditzera eman dutenez, hain zuzen, 92 gaztetxok eman dute izena maiatzaren 31n egingo den sariketan. "Pozik gaude aurten ere hitzordua izan duen erantzun onarekin".

18:30ean emango diote hasiera txapelketari, estalitako pasealekuan eta, taldeka eta kategoria ezberdinetan banatuta, sukaldean duten trebezia erakutsi beharko dute parte hartzaileek.

Ohi bezala, bi mailatan jokatu da norgehiagoka: A kategorian LHko 4. eta 5. mailako ikasleak lehiatuko dira eta B kategorian, berriz, LHko 6. eta DBHko 1. eta 2. mailakoek parte hartuko dute.

Guztientzako sariak

Parte hartzaileek "nahi beste" denbora izango dute platera aurkezteko, baina denek prestatu beharko dute janaria osagai berberak erabiliz. "Hainbat saltokiren eskuzabaltasunari esker, honako osagaiak emango



dizkiogu talde bakoitzari: txistorra zati bana, tipula eta piper berdeak, pikillo piper gorriak, arroza, olioia, gatza eta salda egiteko pastilla bat. Ez diegu utziko eman ez dizkiegun gauzak erabiltzen, baldintza berdinetan parte har dezaten".

Sukaldean aritzeko beharrezko tresna guztiak, sua barne, parte hartzaileek eraman beharko dituzte. Kozinatzekeo litro bat ur ere izan beharko dute eta, gogorarazi dutenez, debekatuta egongo da ura termotan eramatea. Platerak aurkeztu ondoren, epaimahaiak baloratuko du emaitza eta kategoria bakoitzeko hiru onenek sari berezia jasoko dute: "Herriko tabernetan erabili ahal izateko bonu bana jasoko dute". Gainontzeko partaideentzat ere "detaile txiki bat" egongo dela aurreratu dute.

Arbil Elkarte Sozialeko kideek flysch beltzaren berezitasunen berri izan dute Debanaturaren laguntzarekin

Arbil Elkarte Sozialaren maiatzeko egitarauarekin bat egin dutenek flysch beltza hobeto ezagutzeko aukera izan zuten maiatzaren 9an.

Hondartza inguruan hasi zuten bisita, eta itsasbehera aprobetxatuz hainbat geldialdi egin zituzten Sorginetxera bidean. Geldialdietan, besteak beste, fosil tropikalei, dunei, Aitzaundiko hareharriei eta Sorginetxeko harri arteko geruzen tolesdurei buruzko azalpenak eman zizkien Diego Mendoza Debanatura Ingurumen Heziketa Elkarteko arduradunak.

Flysch beltza ezagutzeko irteera gidatuaz gain, Maria Iglesias filosofoaren *Autoezagutza eta bizikidetzatza* hitzaldia ere egin berri dute hilaren 23an. Eta hurrengo asteetarako ere beste hainbat ekintza iragarri dituzte: Azpeitiatik Iraetara ibilaldia (maiatzak 30), Baionara txangoa (ekainak 5), Sasiola eta bere historiari buruzko hitzaldia (ekainak 6), Debatik Sasiolara ibilaldia (ekainak 13), 80 urte bete dituztenei omenaldia eta bazkaria (ekainak 16) eta San Ferminetara irteera (uztailak 11).



Arg.: JOXERRA LARRAÑAGA



Odol Emaileen elkartekoek ekintza berezia egingo dute ekainaren 14an

2024an betetzen dira 60 urte Gipuzkoako odol emaileen kolektiboa sortu zela eta, urteurren berezi horren harira, hainbat ekintza egiten dabiltza lurralde osoan. Ekainaren 14an, adibidez, Odol Emailearen Nazioarteko Eguna izango da, eta egun seinalatu horretarako ere askotariko jarduerak antolatu dituzte.

Debako Odol Emaileen elkarteko arduradunek azaldu dutenez, egun hori herritarrek sentsibilizatzeko aprobetxatuko dute. Emaile berriak erakartzeak "berebiziko garrantzia" du taldearentzat eta horretan jarri nahi dute indarra batez ere. "18:30etik aurrera, informazio mahai bat ipiniko dugu udaletxe azpiko arkupeetan eta bertan

herritarren zalantzak eta kezak argitzen saiatuko gara".

Eskaera berezia gazteenei

Deban eta Itziazarren urtean lau aldiz egiten dira odol ateraldiak, baina, zenbaitetan, hitzorduak libre geratzen direla diote taldekideek. Horren adibidetzat jarri dute azken saioa. "74 herritarrek eman zuten odola, baina jende gehiago ere agertu zen prest. Argi dago herrian odol emaile fidelak ditugula, baina gazteengana gerturatzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu".

Ohartarazi dutenez, "azken urteetako datuen arabera, 18 eta 37 urte bitarteko odol emaileen falta sumatzen da Deban".

Ekainaren 9an egingo dira Europako Parlamenturako hauteskundeak

Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde ondoan, bost urtetik behin egiten diren Europako bozen txanda izango da oraingoan.

Hego Euskal Herrian ekainaren 9rako dago jarrita hitzordua, baina Europako Batasuneko herrialdeetan ekainaren 6tik 9ra daude deituta hauteskundeak. Bertan, Europako Parlamentuan eseriko diren 720 diputatuak aukeratuko dituzte herritarrek.

Kanpaina, bestalde, maiatzaren 24an (gauerdian) hasi eta ekainaren 7an amaituko da eta, gogorarazi dutenez, zabalik dago botoa posta bidez emateko epea; eskaerak maiatzaren 30era arte egin daitezke, Correoseko edozein bulegotan.


Zabalik dago berriz ere Burugorri ostataua

Maiatzaren 18an "lagunarteko giroan" egindako inaugurazioaren ostean, irekita dago urte hasieratik egokitzapenak egiteko itxita egon den Burugorri Ostataua.

Orain arte bezala, eskaintza zabala izango du "herritarren artean hain estimatua den topaguneak" eta asteko egun guztietan egongo da zabalik, 09:00etatik 23:00etara,

"asteburuan itxiera ordua luzatu daitekeelarik".

Zerbitzua Eñaut Landaribar ondarrutarrak kudeatuko du eta "ilusioz beterik" ekin dio aro berriari. Sei hilabeteko hasierako proba epea izango du eta, hori gaindituz gero, gutxieneko bost urterako ustiapen kontratu luzagarria bermatuko dela azaldu du auzo udalak.





IPAR

SURF
SKATE
ESKOLA

Udako eskolan izena emateko epea zabalik!

SURF | TXIKISURF | SKATE | PADDEL

Markiegi kalea 2 - Deba

iparsurfskate.com | info@iparsurfskate.com | 627 32 51 35



“Norberak autozainketa kontzientea eta propioa lantzea oso garrantzitsua da benetako ongizate emozionala lortzeko”

SAIOA GARMENDIA • Ongizate emozionalean aditua



Maiatza eta ekaina bitartean, ongizate emozionala eta autozainketa lantzeko ikastaroa egiten ari dira Deban. Udalak antolatu du herritar guztiei zuzendutako doako tailerra, eta Saioa Garmendiak (Astigarraga, 1979) gidatzen ditu saioak; azaldu duenez, konfiantzazko giroa sortu eta "eguneroko bizitza hobetzeko erremintak eta baliabideak" ematen dizkie parte hartzaileei.

Erritmo oso azkarrean bizi garen garaiotan, tarte bat hartu eta norbere burua zaintzeko, autoestimua hobetzeko eta emozioak kudeatzen ikasteko "gune atsegin eta lagunkoia" eskaintzen duten ikastaroak gidatzen ditu Saioa Garmendiak. Aditua da ongizate emozionalean, coach pertsonalean, emozioen kudeaketan, adimen emozionalaren garapenean eta *mindfulness*-ean, eta herriz herri ibiltzen da ongizate emozionalari eta autozainketari buruzko tailerrak ematen. Horretan dihardu Deban ere; maiatzaren 10etik ekainaren 19ra, herritar guztiei zuzendutako ikastaroa eskaintzen ari da.

Ongizate emozionala eta autozainketa lantzeko tailerrak gidatzen dituzu hainbat herritan. Nolatan edo zer behar ikusita hasi zinen tailer horiek ematen?

Nire ibilbide pertsonala zaintzaren arloan garatu dut urte luzez. Duela urte batzuk heriotzari buruzko ikasketa batzuk egin ondoren, azkenetan zeuden gaixoen zaintzaileen beharrei buruzko tesina egin nuen, eta orduan ikusi nuen zaintzaileak zer egoeratan dauden, zer behar dituzten... Hortaz jabetuta, zaintzaileentzako "laguntza eta atsedeen tailerrak" ematen hasi nintzen, haien beharren eta emozioen kudeaketan laguntzeko asmoarekin.



Gero eta gehiago entzuten da ongizate emozionala zaindu beharra dagoela, baina zer garrantzi ematen zaio egunerokoan norbere buruaren zaintzari?

Orokorrean, egunerokoan geure burua zaintzearen garrantziaz ahaztu egiten gara; modu inkontzientean eta erritmo oso azkarrean bizi gara, gauza asko ditugu egiteko eta ez dugu geure burua zaintzeko denborarik.



Tarte bat hartzen baldin badugu, geure osasun fisikoa zaintzeko erabiltzen dugu, baina geure osasun mentalaz eta emozionalaz ahaztu egiten gara, eta horiek ere beharrezkoak dira ongizatea lortzeko. Bizi garen gizarteak garrantzi handia ematen dio osasun fisikoari eta hori da erakutsi digutena, baina orain arte emozionalari eta mentalari ez zaio horrelako garrantzirik eman eta, hortaz, ez digute erakutsi hori zaintzen eta zaintze horren garrantziaz jabetzen. Norberak autozainketa kontzientea eta propioa lantzea oso garrantzitsua da benetako ongizate emozionala lortzeko.

Zer nolako profila izan ohi dute tailerretan parte hartzen duten herritarrek? Badute ezaugarri komunik, ala denetarik dago?

Adin eta profil desberdineko herritarrak etortzen dira. Lan egiten duen herrietako udalek erabakitzen dute nori zuzendutako tailerrak nahi dituzten, eta horren arabera izaten da eskaintza. Profil desberdinak daude tartean: zaintzaileak, zaintzaile profesionalak, gazteak, haurrak eta nik "orokorrak" deitzen ditudanak (herritar guztientzat zuzendutako tailerren kasuan).

Zure ustez, jendea zer kezka eta beharrekin bertaratzen da gidatzen dituzun saioetara?

Denetarik dago. Batzuk behar zehatz batengatik

"Tarte bat hartzen baldin badugu, geure osasun fisikoa zaintzeko erabiltzen dugu, baina geure osasun mentalaz eta emozionalaz ahaztu egiten gara"

etortzen dira, eta beste batzuk beren ongizatea hobetu nahi dutelako. Badirudi horrelako tailerretara gaizki sentitzen garenean joan behar garela, eta ez da horrela; ez baldin bagaude ondo, lagundu egingo digu eta ondo baldin bagaude, hobeto egoten lagunduko digu.

Hasiera batean zaintzaileei zuzendutako tailerrak ematen hasi zinen, baina gero gainontzeko herritarrei ere zabaldu zenien aukera hori. Zergatik?

Bai. Zaintzaileekin hasi nintzen lanean, baina ongizate emozionala eta autozainketa lantzen dudanez, tailerrak beste profil batzuetako pertsonentzat ere lagungarriak izan zitezkeela konturatu nintzen. Eta horregatik hasi nintzen tailerrak jende gehiagori ere ematen.

Zer ari zarete lantzen Debako tailerrean?

Helburu nagusia parte hartzaileen ongizatea hobetzea da. Tailerretara etortzen diren pertsonen atsedean hartzeko gune atsegin eta lagunkoia izango dute, beren burua zaintzeko denbora hartuz, eta bertan norbere burua zaintzeko, autoestimua hobetzeko eta beren emozioez jabetu eta horiek kudeatzen ikasteko gaiak aztertuko ditugu. Hori guztia lantzeko, alde batetik, ariketa eta dinamika desberdinak erabiliko ditut; bestetik, estresa kontrolatzeko tresnak landuko ditugu, hala nola giharrak erlaxatzeko ariketak, autokontrolerako teknikak eta erlaxazio teknikak. Beren ongizate emozionala eta autozainketa ahalik eta ondoen zaintzeko behar duten guztia emango diet, beren egunerokotasuna hobetzeko baliabideak eskainiz.

Garrantzitsua izango da saioetan landutako teknikak egunerokoan aplikatzea, ezta? Zer onura dakartza?

Tailerretan lantzen duguna gure egunerokoan praktikan jartzea ezinbestekoa da benetako onura atzeman eta lortu nahi badugu. Nik beren eguneroko bizitza hobetzeko erremintak emango dizkiet, baina erreminta horiek beraiek erabili eta jarri behar dituzte martxan. Erabiliz gero, onura asko lortuko dituzte: kontzienteago bizi, autoestimua hobetu, beren emozioak kudeatu, etortzen zaizkien arazoei modu egokian aurre egin... Azken finean, lasaia eta gusturago bizi ahal izango dira.

Maiatzaren 24an hasiko da Debako 37. Antzerki Astea

Maiatzaren 24tik ekainaren 2ra bitartean egingo dute euskal antzerkiaren erakusleio den jaialdia Deban, eta guztira Euskal Herriko zortzi konpainiak hartuko dute parte. Bete-betea dator, hortaz, azken hilabeteotan prestatutako egitaraua, genero ezberdineko bederatzikuskizunekin eta "gustu guztiak asetzeko" moduko eskaintzarekin —egitaraua ondoko orrietan duzue ikusgai eta emanaldietarako sarrerak Internet bidez eros daitezke—. Goaz Antzerki Taldearen ekimenez eta udalaren laguntzaz egingo den Antzerki Asteak 37. edizioa du aurten.



Antzezlanegibeterikogegitarauaprestatutute37.AntzerkiAsterako.Ekainean ospatu zuten iaz, baina maiatzean abiatuko da aurtengoa, edizio gehienetan bezala, eta zazpi egunetan bederatzikuskizun taularatuko dituzte, helduentzat zein haurrentzat. "Komedia asko izango dugu, baita satira, kritika zein melodrama ere. Gustu guztiak asetzeko lain egongo da, seguru", aurreratu dute Goazeko kideek.

Zortzi konpainia ariko dira agertokian, talde amateurrek ere tartean, beti legez. "Goaz talde amateur izanik, eta antzerkigintza amateurrek zirkuitu bat osatzeko izaten dituen zailtasunez jakitun, konpainia horiei espazio bat eskaini nahi izan diegu aurten ere. Bergarako Kokoxa eta Lezoko Orratz! talde amauterrak izango ditugu gurean", aipatu dute.

Goazek berak ez du emanaldirik egingo Antzerki Astea, oraindik ere iaz Fokupean festibalean estreinatutako *Lotura basatiak* performancearekin "indartsu" jarraitzen baitu taldeak; Deban birritan antzeztu ondoren, Mendaron, Bermeon eta Mutrikun taularatu dute lana, eta ekainaren 8an Aizarnan ariko dira. "Oso harrera ona izan du, publikoa hunkituta eta esker oneko irteten da, eta horrek



Goaz Antzerki Taldeko kideak aurtengo Antzerki Astearen kartela eskuetan dutela. ERREDAKZIOA

antzezlanarekin jarraitzeko gogoia ematen du. Gainera, talde eta giro oso polita sortu dugu gure artean, eta hori da altxorrik handiena".

Berritasunak eta oztopoak

Antolatzaileek azaldu dutenez, berritasunak izango dira aurtengo egitarauan: "Lehen aldiz, Gozatuz egitasmoko antzerki ikastaroko umeei Antzerki Astearen egingo dute beren emanaldia. Gainera, antzerkiaren gozatzeko eta harremanak sortzeko helburua ere badaukagu. Ekainaren 2an, adibidez, solasaldirako aukera izango dugu; bi antzezlan labur egingo ditu Goitibera taldeak eta, ia izandako arrakasta ikusita, bi emanaldien artean mokadu bat jateko aukera izango da. Bi saioak amaitzean, gainera, konpainiak solasaldi filosofiko bat planteatuko du Jakinmin elkartearen kide batekin", erantsi dute.

Bestalde, aldaketak izango dira kokaguneari dagokionean ere. Ez da saiorik izango Goazen Osioko lekuan eta Aldatsen, eta ikuskizun gehienak Ispiluen gelan egingo dira; kale antzerkia eta Itziarko emanaldia izango dira salbuespenak. "Osioko lokalak irisgarritasun arazoak ditu, erdigunetik urrun egoteaz gain eskailerak igo behar direlako nahitaez bertara heltzeko. Pilotalekua handia da eta jende asko

"Komedia asko izango dugu, baita satira, kritika zein melodrama ere. Gustu guztiak asetzeko lain egongo da, seguru"

sar daiteke, baina oihartzunak, hotzak, kanpoko zaratek... ez dute emanaldi bat lasai egiteko aukerarik uzten. Eta Ispiluen gela atsegina da, baina bere mugak ditu, nahi baino txikiagoa izanik, bertan ezin delako muntaketa handirik egin. Horregatik egin dugu berriz ere pieza txikiagoak ekartzeko apustua", arrazoitu dute. Hartara, herrian kulturegune egoki bat ez izatea "oztopo bat" dela gogorarazi dute, bai antzezlanak hautatzerakoan, bai antolatzaileentzat eta bai publikoarentzat oro har.

Urte berezia Goaz taldearentzat

Ostolaza Sarietako bat oso pozik eta esker onez jaso berritan, 2024a urte berezia izango da Goazentzat; 50 urte beteko ditu aurtengo. "Mende erdi! Azkar esaten da... *Goaz-kide* izandakoekin azaroan egingo dugu ospakizuna eta antzerkiz bustiko ditugu kaleak. Ondo pasako dugu!".

Maiatzak 24, ostirala | 19:00 | Plaza Zaharra

> *Legea gu gara*

Cia Barsanti (Bilbo) • Kale antzerkia • Doan

Sergio eta Erramun istiluen kontrako brigadako bi polizia dira, perfil oso ezberdinekoak. Arkauten sorturiko "asalto brigada beldurgarrienetako" bat osatzen dute.

Bi protagonistak plazara iristen dira bertan ospatuko den legez kanpoko botiloia ekiditeko. Baina hara iristean, amaiezina bihurtuko den abentura batekin egingo dute topo. Publikoa plazara hurbildu eta erdi-erdian susmagarria den furgoneta bat aurkituko du; Erramun eta Sergioren presentziarekin argituko dira furgoneta horren inguruko zalantza guztiak...

50 minutuko ikuskizuna da *Legea gu gara*, Cia Barsanti antzerki konpainiak bereizgarri dituen osagai eszenikoekin sortutako pieza umoretsu eta ausarta. Kale antzerkian ohikoa den hizkuntza erabilia, umorea eta egunerokotasun soziala azaleratzen dira Deban aurkeztuko duten antzezlanean, "lerdotasunera eta zoramenera" eramango gaituzten bi pertsonaia horien bitartez.



Fitxa artistikoa:

Aktoreak: Aritza Rodriguez eta Juanjo Otero

Jantziak: Enriqueta Vega

Zuzendaritza: Pako Revueltas

Iraupena: 50 minutu



Maiatzak 25, larunbata | 19:00 | Ispiluen gela

> *eMcumeak*

Zelako Kultur Ideiak (Alonsotegi) • 8 euro

Maria Riveganak eta Itxaso Papayak kontratazio-bitartekaritza egiten duen eMcumeak bulegoan lan egiten dute. Egunero jasotzen dituzte, kuota betetzeko asmoz, emakume sortzaileak behar dituzten bezeroen eskariak. Bidean konpetentziak eragindako oztopoak topatuko dituzte.

Satira musikal honek emakume sortzaileen egoera mahai gainean jarriko du, izenaz eta izanaz; umoretik eta umoretsu, baina kritika egiteko gogoz ere bai.

Fitxa artistikoa:

Zuzendaritza: Olatz Beobide

Aktoreak: Maria Rivero eta Itxaso Paya

Eszenografia: Atx diseinua

Eduki grafikoak: Taom

Bidelagunak: Katixa Agirre eta Harkaitz Cano

Iraupena: 60 minutu

Maiatzak 26, igandea | 12:30 | Ispiluen gela

> 150

Kokoxa (Bergara) • 8 euro

Ezkontza bateko jatetxeko komunean kokatzen da umorezko antzezlan hau. Bertan, bazkaria hasten denetik ospakizuna amaitu arteko bizipen eta pasarte desberdinak ikus daitezke: bikote arteko gatazkak, lagunuen arteko konplizitate momentuak eta deskontrol egoerak, besteak beste. Nork daki non dauden mugak eta zer gerta daitekeen familia, lagunak eta etsaiak elkartzen dituen festa batean. Alde batetik, emaztearen kuadrilla eta beren arteko nahaspila. Bestetik, senarraren azpijokoa eta bere kuadrillaren desfasea.

Isilpeko maitasuna, lagunuen arteko engainuak, bukatzen diren harremanen dolua, zeloak eta umiliazioa, adarrak, drogak... horiek guztiek osatzen dute 150 antzezlan.

Bergaran sortutako antzerki taldea da Kokoxa. Gaur egun, zortzi lagunek osatzen dute taldea eta antzezlan hau guztien artean sortu dute; inprobisazio hutsetik abiatuz asmatutako istorioak dauzka oinarrian.



Fitxa artistikoa:

Aktoreak: Unai Barrutiabengoa, Garazi Olabarria, Maite Aristegi, Iosu Agirre, Nere Aspiazu, Ana Moñux eta Mikel Uribarren
Zuzendaritza: Ana Abajo
Iraupena: 75 minutu

OHARRA: Antzezlan amaitzean luntxa egongo da.



Maiatzak 26, igandea | 18:00 | Itziarko Burugorri

> Eucalyptus

Jon Ander Urresti (Bermeo) • Doan

Eukaliptotik abiatuta, gure lurren eta bizitzaren ku-deaketari buruz hausnartzeko lana da. Honela dio sinopsiak: "Hau ez da baso bat. Hamen lurra karratua da. Hamen ilarak osatzen doguz. Hamen gatxa da gauzak sustraitik moztea. Hamen, eta hor, eta han. Hau monolaborantza da. Gure bizi-eredua, paisaia islatua. Euskalytus esatea etekin esatea da. Euskalyptus esatea errekin esatea da. Euskalyptus esatea berrekin esatea da. Euskalyptus esatea gutaz aritzea da. Eroan nazazu basora, eta esango deusut norena dan, eta zer haziko dan gu falta garenean. Eta zu, zerk sutzen zaitu?".

Fitxa artistikoa:

Zuzendaritza: Matxalen de Pedro eta Jon Ander Urresti
Aktoreak: Jon Ander Urresti eta Beñat Urrutia
Testuak: Nerea Ibarzabal, Jon Ander Urresti, Matxalen de Pedro eta Beñat Urrutia
Iraupena: 60 minutu

Maiatzak 28, asteartea | 18:00 eta 19:00
Ispiluen gela

> Lasturko jauregia

Debako Gozatuz antzerki ikastaroko umeak • Doan

Gozatuz ekimenaren baitan antzerki ikastaroan parte hartu duten ikasleek *Lasturko jauregia* antzezlanaren aurkeztuko dute. Honela dio sinopsiak: "Gabon Zahar gauean Lasturko jauregian pertsonaia ugari bilduko dira, baina ustezko luxuzko gaua ez da horren luxuzkoa izango..."



Maiatzak 30, osteguna | 10:30 eta 11:30
Ispiluen gela (Luzaroko ikasleentzat)

> Urtaroen musikala

Aizarnako Herri Eskola • Doan

Norbaitek etxeko txirrriak jo digu eta gutun bat eman dit eskura. Pozez zorutzen jarri gara laguntzua eta biok. Iritsi da garaia! Iritsi da elkartzeko parada! Duela urtebete ez garela laurok elkartu. Urtaroen urteko batzarra iritsi da. Zita garrantzitsua, zalantzarik gabe. Baina... dena nahi moduan aterako ote? Denak elkartzea lortuko ote dute?



Ekainak 1, larunbata | 19:00 | Ispiluen gela

> Ai, ai, ai, badatorrela!

Orratx Antzerki Taldea! (Lezo) • 8 euro

Eguneroko errutinan, ezarritako ordenean eta harremanean babestutako bi ahizpa lasai asko bizi dira beren betiko etxebizitzan. Norbaitek atea jo du. Nor ote da? Badaezpada ere hobe ez irekitzea. Gutun bat ate azpitik agertzen da. Beraien bizitza aldatuko al da? ...ala ez?

Komedia beltz honek umorea eta gizakiaren alderik ilunenari buruzko gogoeta batzen ditu, dibertsioa salbatzeko dena justifikatzeko gai den ikuskizunean.

Fitxa artistikoa:

Zuzendaritza: Lierni Fresnedo

Aktoreak: Edurne Agirrezabala, Araitx Larrea eta Amaia Herrero

Eszenografia: Joxean Intziarte

Iraupena: 50 minutu





Ekainak 2, igandea | 12:30 | Ispiluen gela

> **Amatxik dixit**

Goitibera (Nafarroa)

Guda zibilean jazarpenak eta kondanak sufritu zituzten pertsonei omenaldia egin nahi dien antzezlanaren taularatuko du Goitibera konpainiak: "Familia guztietan dago gogora ekartzea merezi duen istorio bat, eta gure familian Amatxiren lehengusinarena da, guda garaiko istorioa, maitasun istorioa...".

2019an, Pabilioi 6-ko Antzerki Arinaren VII. Jardunaldietan, *Amatxik dixit*-ek pieza onenari eskainitako Kriselu Saria lortu zuen, baita publikoaren saria ere.

Fitxa artistikoa:

Gidoia eta zuzendaritza: Saioa Iribarren

Aktoreak: Nerea Ariznabarreta, Ander Basaldua eta Gaizka Chamizo

Iraupena: 20 minutu

OHARRA: Bi emanaldi izango dira ekainaren 2an; 12:30ean hasiko da lehen antzezlanaren ondoren, bigarrena hasi aurretik, luntxa eskainiko dute. 8 euroan salduko dira bi saioetarako eta tarteko luntxerako sarrerak.

Ekainak 2, igandea | Ondoren | Ispiluen gela

> **Zuri**

Goitibera (Nafarroa)

Espetxeek presoengan duten eragina aztertzen duen melodrama da: "Espetxean oso erraz sartu daiteke, baina bertatik ateratzea ez da inoiz erraza izan. Zorritzarez, sistema kapitalistak oraindik ere erabiltzen dituen instituzio zaharkitu hauetan gertatzen diren istorioetako bat da hau. Sartu, zarata sortu gabe... ixo! Gaur zure lehenengo eguna da...".

Fitxa artistikoa:

Gidoia eta zuzendaritza: Saioa Iribarren

Aktoreak: Ander Basaldua eta Gaizka Chamizo

Ekoizpena: Goitibera

Iraupena: 25 minutu



SARRERAK INTERNET BIDEZ EROSTEKO AUKERA

Urtero bezala, emanaldi bakoitza hasi aurretik sarrerak aretoan bertan izango dira salgai. Aldez aurretik eskuratu nahi dituztenek Internet bidez erosteko aukera ere izango dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Ondorengo estekan eskuratu daitezke: www.labur.eus/DebaAntzerkiAstea



Debarren Eguneko asteburuak lagatakoa

Egun handia igandean (maiatzak 19) ospatu zen arren, asteburu osoko egitaraua izan du aurten ere Debarren Egunak. Aukeran izan dira haurrentzako sormen tailerra eta pintura lehiaketa, barrakak, sokatira erakustaldia, musika emanaldiak, zezenak... eta, nola ez, jadanik herrian ondo errotuta dauden eta ospakizun honetan bereziki esanguratsuak diren bestelako jarduera batzuk ere, hala nola euskal dantzak edota erraldioen konpartsen desfilea eta alardea. Hona hemen zenbait argazki:



Argazki gehiago
berriketan.eus atarian



Zuhatza-Kolore Anitzek antolatutako 'Buruhandiak sortzen' tailerra.



Kalean Kantuz taldearen emanaldia hilaren 17an.



Pepe Izaga eta Carlos Monte erraldioen errepliken aurkezpena.



Deba eta Lizarrako gaiteroak kalejiran.



XXXI. Haur Margo Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.



Laukizko Gaztedi Taldea zumardian egindako sokatira txapelketan.



Gure Kai eta Kalez Kale Foruen Plazan egindako dantza erakustaldian.



Banda Gaztearen kalejira.



Debako erraldoien konpartsako kideak desfilearen amaieran.



Muxtruk erromeriak itxi zuen Debarren Eguneko egitaraua.

Guillermo Andonegi, Garbiñe Iriondo, Aitor Oñederra eta Goaz taldea Ostolaza Sarien jabe



Ehun bat lagun bildu ziren maiatzaren 11n Kultur Elkarteak, estreinakoz antolatu dituzten Ostolaza Sariak banatzeko egindako ekitaldian. Jose Manuel Ostolazari omenaldi xumea eginez eman zitzaion hasiera hitzorduari. Lehenik, haren bizitzaren errepaso bat egin zuen Alex Turrillas Aranzetak eta, ondoren, ohorezko agurra dantzatu zioten, baita lore eskaintza egin ere.

Valladoliden jaio zen Ostolaza, 1875. urtean, bere gurasoak hara joanak baitziren gerra karlistatik ihesi; jaio eta hilabete gutxira ekarri zuten Debara eta bertan hazi zen. Gerora, Mexikon eta AEBetan enpresari lanetan aritu zen eta bere ondasunen zati garrantzitsu bat dohaintzan eman zuen EBEFO eraikina sortzeko (Ostolaza Fundazioaren Emigranteentzako Liburutegi Eskola) eta Debako kultura sustatzeko. Mexiko Hirian zendu zen, 1954an. Bere ekarpena aitortu nahian, hain justu, Ostolazari omen egitera datoz lehenbizikoz banatu dituzten kultur sariak ere.

Udalerriko kultur jarduera aberasten laguntzen duten herritarren edo erakundeen lana aitortzea eta

aintzatestea dute helburu Ostolaza Sariak. Lehen edizio honetan, epaimahaia Guillermo Andonegi eskuetara eman dio *Sortzaileak Saria*. Proiektu kolektiboen edo taldeen lana aitortzeko *Dinamikak Saria* Goaz Antzerki Taldeak eskuratu du. Pertsona baten ibilbidea eta kulturari egindako ekarpena aintzatesteko helburua duen *Ezinbestekoak Saria* Garbiñe Iriondok eraman du. Azkenik, kultura-arloan egindako lana eta sortzailearen etorkizuneko proiektua nabarmendu nahian, *Hazia Saria* Aitor Oñederrarentzat izan da.

Ekitaldian herriko hainbat lagunek eta kultur taldek parte hartu zuten; musikak, antzerkiak eta poesiak biribildu zuten omenaldia.

Bazkidearen Eguna

Sariak Kultur Elkarteak bazkideen omenez antolatu-tako egunean bertan banatu zituzten. Ez zen izan, ordea, ekintza bakarra. Herri bazkariak, Andoni Agirregomezkortaren *Un vasco de la hostia* ikuskizunak eta Skabidean-en kontzertuak osatu zuten egitaraua.

Ehun dantzari baino gehiago ariko dira oholztan Kulunkaren ikasturte amaierako jaialdian

Kulunka dantza taldeko ikasleek ikasturte amaierako emanaldi berezia eskainiko dute ekainaren 15ean; Aldats pilotalekuan izango da hitzordua, 22:00etan.

Alaitz Izaga dantza taldeko irakasle eta arduradunak azaldu duenez, 4 eta 70 urte bitarteko 105 dantzarik parte hartuko dute ikuskizunean. "Eskolan dabiltzan ia ikasle guztiak ariko dira oholztan eta, ordubete eta laurdeneko tartean, ikasturtean ikasitako 23 koreografia aurkeztuko dituzte".

Izagak azpimarratu duenez, koreografia propioak taularatuko dituzte. "Amaia Cabero eskolako irakasleak eta nik neuk asmatutakoak edo sortutakoak dira. Hainbat estilotako dantzak aurkeztuko ditugu, bai musika aldetik, bai koreografia aldetik. Ballet klasikoak, dantza neoklasikoak, garaikidea, modernoa, jazz... denetik egongo dela aurreratu dezakegu".

Sarrerak

Sarrerak turismo bulegoan egongo dira eskuragarri, ekainaren 10etik aurrera, 4 euroren truke. "Saioaren egunean oraindik sarrerarik balego, emanaldia hasi aurretik pilotalekuko atean izango ditugu salgai".



Taldeetako bat iazko jaialdian. KULUNKA

Antolatu duten jaialdia "koloretsua, polita eta oso ezberdina" izango dela aurreratu du Izagak eta, hortaz, erakustaldiaz gozatzeraz gonbidatu ditu herritarrak. "Azken hilabeteotan buru-belarri ibili gara emanaldi hau prestatzen eta emaitza jendaurrean aurkezteko gogotsu daude dantzariak ere".

Festa giro jatorrean ospatu dute Itziarko Erromeria Eguna, hamalagarrenez



Arg.: ITZIAR.BERISTAIN AIZPURUA

Hamalagarren Erromeria Eguna ospatu zuten itziartarrek maiatzaren 4an, eta guztia ondo joan zela azaldu dute antolakuntzako kideek. Plazan egiten ari diren eskolako obra dela eta, aurreko antolaketa ezberdina izan du hitzorduak, baina horrek ez zuen bertaratutakoen festarako gogoak zapuztu.

Aurreikusi bezala, 12:00ak jo eta berehala eman zioten hasiera egitarauari eta, aipatu dutenez, goizeko ordu txikiak arte luzatu zuten festa. Besteak beste, herriko trikitilarien eta panderojoleen kalejiraz, Andutz Dantza Taldeko eta Itziarko Trikiti Eskolako ikasleen emanaldiaz eta arratsaldeko eta afalosteko erromeriez gozatzeko aukera izan zen.

“Herritar guztiei zuzendutako ekintzak antolatzea eta eskaintzea izan da helburu nagusia”

Andrea Larrinaga • Zurrumbilo Ur Kirol Elkarteko lehendakaria



Debadaba Festak iaz izan zuen harrera ona ikusita, aurten ere surfa, kirola, aisialdia eta kultura uztartzen dituen jaialdia errepikatzea erabaki dute Zurrumbilo Elkarteko eta Yako eta Ipar Surf eskoletako kideek. Ekaineko bigarren asteburua (ekainak 7-8) aukeratu dute ekimena bigarrenenez ospatzeko eta, iragarri dutenez, aldaketa "gutxi" izango dira egitarauan: "Herritarren artean arrakasta izan zuten ekintzak mantentzea erabaki dugu. Parte-hartze txikiagoa izan zutenak, berri, moldatu edo aldatu egin ditugu". Festaren egitarau osoa *berriketan.eus*-en egongo da ikusgai.

Azken hilabeteotan hitzordua burubelarri prestatzen aritu ondoren, Debadaba Festari ekainaren 7an hasiera emateko prest dute guztia ekimenaren sortzaile eta bultzatzaileek. Jai giroa herri osora zabaltzeko helburuari helduta ondu dute egitaraua, eta asteburu horretan Debara gerturatzen direnek surfaren bueltako jarduerak eta bestelako hamaika ekintza izango dituzte aukeran. Antolatu duten jaialdiaren xehetasunen berri izan nahian, Andrea Larrinaga (Deba, 1996) Zurrumbilo Ur Kirol Elkarteko lehendakariarekin elkartu da *Berriketan*.

Zer da Debadaba Festa zuentzat? Zein da helburua?

Guretzat, Debadaba herritik eta herritarrentzat sortutako festa bat da. Debako herritar eta eragile guztiek jai egun eder bat elkarrekin pasatzea da helburua eta, surfaren inguruan sortutako ekimen bat baldin bada ere, kontzertuak, merkaturak, yoga, capoeira, entrenamenduak, jolasak, *slackline* tailerrak... ere izango dira aukeran.

Ekimena iaz egin zenuten estreinakoz, eta aurten jarraipena ematea erabaki duzue. Zer dela eta?

Egia esan, iaz jaialdia oso ondo irten zen, eta espero baino jende gehiago hurbildu zen. Pozik geratu ginen

eta, hitzorduak izan zuen arrakasta ikusita, ez genuen zalantzarik izan aurtengoa prestatzen hasteko orduan. **Halako ospakizunen atzean, ikusten ez den lan handia izan ohi da askotan...**

Bai, hala da. Iaz, adibidez, lan karga handia izan genuen. Dena den, aurtengoa bigarrena izanik, oraingoan errazagoa izan da guztia prestatzea.

Noiz hasi zineten egitaraua zehazten?

Martxoan. Egin beharrekoak hasieratik zehaztu eta banatu genituen, eta hurrengo bileretan guztiaosatzen joan ginen; elkarlanari esker, jaia aurrera ateratzea lortu dugu.

Bi eguneko festa izango da aurten ere, ezta?

Bai, bi eguneko hitzordua izango da: ekainaren 7an (ostirala) eta ekainaren 8an (larunbata) ospatuko dugu Debadaba. Bi egun horietan ekintza desberdinak egongo dira aukeran, bereziki larunbatean. Izan ere, egitaraua osatzeko orduan adin guztietako jendea hartu dugu kontuan. Herri osoarentzako jaia izango da; beraz, herritar guztiek parte hartzeko moduko jarduera ugari antolatu ditugu. Eta, hori horrela izanik, bi eguneko jaialdia antolatzea beharrezkoa zela iruditu zitzaigun, jarduerak aldi berean egin ez zitezen. Horrela, herritarrek ekintza gehiagotan parte hartu ahal izango dute.



Ezkerretik eskuinera: Ander Alberdi Txintxe (Ipar Surf & Skate), Andrea Larrinaga (Zurrunbilo) eta Aitor Lopez de Lacalle (Yako Surf).

lazkoarekin alderatuta, zein berritasun izango ditu ekaineko jaialdiak?

Aurtengo egitaraua osatzerakoan, herritar guztiei zuzendutako ekintzak antolatzea eta eskaintzea izan da helburu nagusia, eta hori izango da jaialdiaren ardatza. Hori abiapuntutzat hartuta, herritarren artean iaz arrakasta izan zuten ekintzak mantentzea erabaki dugu. Parte-hartze txikiagoa izan zutenak, berriz, moldatu edo aldatu egin ditugu. Eta, horrekin lotuta, ekintza batzuetan parte hartzaileen kopurua mugatzea erabaki dugu. Izan ere, iaz oso zaila izan zen jarduera batzuk kudeatzea, parte-hartzea handia izan zelako. Beraz, uste dugu neurri honekin errazagoa izango dela guretzat, eta jendeak gehiago gozatuko du.

Surfarekin lotuta ez dauden bestelako ekintza batzuek ere tartea izango dute Debadaban. Zer nolako proposamenak edo jarduerak izango dira aukeran?

Bestelako ekintza batzuetan parte hartzeko aukera egongo da. Herriko festa bat izanik, ahalik eta eragile gehienek parte hartzea da helburua. Eragile horiek, gainera, egiten dutena herriari erakusteko aukera izango dute eta, hortaz, herritarrek doan probatu ahal izango dituzte beren jarduerak. Era berean, musikak ere paper garrantzitsua izango du. Guztiek ondo pasa dezaten, musika mota ezberdinak egongo dira presente

“Surfaren inguruan sortutako ekimen bat baldin bada ere, kontzertuak, merkatua, yoga, capoeira, entrenamenduak, jolasak, slackline tailerrak... ere izango dira”

egitarauan: alde batetik, kontzertu lasaiagoak (musika brasildarra, melodikoa edota surf kutsukoa) egingo dira eta, bestetik, DJak ere izango ditugu.

Non izango dira jarduerak?

Giro ona herri osora zabaldu nahi dugu eta, helburu hori lortze aldera, aldaketa batzuk egin ditugu. Aurtun, adibidez, dendariak ez dute posturik jarriko merkatuan; festa giroa herrigunera ere irits dadin, denda bakoitzak *outlet* moduko bat jarriko du bere ohiko dendan.

Aldez aurretik izena eman beharko da jardueretan parte hartzeko?

Bai, noski! Eta ekintza guztiak doakoak izango direla ere azpimarratu nahiko genuke. Izen-emate zerrendak dagoeneko zabalik daude Iparren, Yako dendan, turismo bulegoan eta Luzaro ikastetxean.

Burdin Kurutz eta Mendiriz Mendi, ia mende laurden senidetasuna sendotzen

JOXEMARI ALTZIBAR

Duela 24 urte, 2000. urtean, Debako eta Kanboko (Lapurdi) udalak senidetzeko harremanak sendotzen hasi ziren. Eta, bide batez, Burdin Kurutz mendi taldean Kanboko Mendiriz Mendiko kideekin harremanetan jartzeko gonbidapena jaso genuen.

2000. urtean bi udalerrien arteko senidetze-hitzarmena sinatu zenez geroztik, mendi taldeon arteko harremanak sendotzen joan dira eta urtero-urtero batzen gara; urte batean Kanbon elkartzen gara, eta hurrengoan Deban, txandakatuz. Taldeen osaera oso ezberdina da, Burdin Kurutz ikaslez eta gurasoz osatua baitago, eta Mendiriz Mendik, berriz, taldekide jubilatua ditu. Baina gure artean oso harreman eta giro ona izatea lortu dugu.

Era berean, gure artean bada beste ezberdintasun nabarmen bat ere: hizkuntza. Kanboarren hizkuntza nagusia frantsesa da, baina, zorionez, gero eta euskaldun gehiagok osatzen dute taldea. Beraz, gure artean ezberdintasunak baditugu ere, urte hauetan guztietan giro atsegina eta elkar-ulertze ona izan dugula azpimarratu nahiko nuke.

Arbil aldera

Aurten, guri egokitu zitzaigun senidetze eguna prestatzea eta, ohi bezala, mendi irteera antolatu genuen. Oso argi genuen nora joan, goiz-pasa egiteko Arbil mendiak eskaintzen baitzigun aukerarik ederrena. Arbileria igotzeko hainbat aukera daude: kanaletik, PR-GI44 bidea hartuta Kortaberri baserri paretik,



Itziartik, Lizarreta mendi magaletik edo Arriolatik. Ederrak dira guztiak, baina irteera hau egiteko azkena iruditu zitzaigun politena. Baserritar batek Arbileria igotzeko oztopoak jarri zitzigun eta bertatik igarotzeko debeku deiak jaso genituen, baina gure herri-bideetan ibiltzeko dugun eskubidearen babesean, bide hori egitea erabaki genuen.

Horrela, Debatik hasi eta Arriola auzotik, Pagatza baserri aurretik eta Arbileria txabola ondotik igaro ondoren, Arbileria igo ginen. Buelako bidean, Pagatza baserri paretik pasa ginen berriz, eta handik Otzaurte gainera abiatu ginen. San Rokeetik Debara jaitsi aurretik, Santa Katalinan ere izan ginen, bidea Antsorregitik eta Olloki baserriaren ondotik eginez.

Mendi irteera egiteko eguraldi ezin hobea izan genuen eta, guztia borobiltzeko, bazkaria egin genuen gero Ozio-Bide elkartean, giro jatorrean. Kanboko mendizaleak agurtu ondoren, datorren urtean Kanbon elkartzeko gonbidapena ere jaso genuen: 2025eko apirilaren 6an izango da hitzordua. Bi udalerrien arteko senidetze-hitzarmenaren 25. urteurrena dela eta, egun horretarako zerbait berezia antolatu nahi dutela iragarri ziguten kanboarrek.

Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - beheia | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com

ieraenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

marruecos
viajes y tours

Neurrira egindako
bidaia Marokora
607 76 11 46
www.viajesytoursmarruecos.com

Lander Albizu bigarren, Espainiako Erkidegoen Futbol Txapelketan

Apirilaren bukaeran Madrilen jokatu zen Espainiako Autonomia Erkidegoen Futbol Txapelketaren Urrezko Fasearen finalera iritsi zen Lander Albizu Arauco aurrelari debarra. Gizonezkoen Euskal Selekzioaren 16 urtez azpiko taldean jokatzeko aukera izan zuen Amaiak Bateko kadeteen euskal ligako taldeko kideak.

Beñat Etxebarriak eta Jaime Zumalakarregik zuzentzen duten taldearekin aritzeko hautatuetako bat izan zen, eta minutu batzuk jokatzeko aukera ere izan zuen Herrialde Katalanen kontra jokatuutako finalean. Herrialde Katalanetako selekzioaren aurka 0-1 galdu ondoren, debarra parte izan zen taldeak txapeldunorde amaitu zuen proba.

16 urtez azpikoaren taldeak kopa irabazteko aukerarik izan ez bazuen ere, Euskal Selekzioako ordezkariak pozik azaldu ziren jokalariek egindako txapelketarekin. Azpimarratu zuten, "maila itzela" erakutsi zuten.



Espainiako Autonomia Erkidegoen Futbol Txapelketaren Urrezko Fasearen azken txanpan ez ezik, joan den otsailaren 7tik 11ra Chipionan (Cadiz) jokatu zen txapelketaren sailkapen fasean jokatzeko aukera ere izan zuen aurrelari debarrak.

Gol erabakigarria

Sailkapen fasean, gainera, gol erabakigarri bat sartu zuen Albizuk.

Balearren aurka jokatuutako lehen partidari debarrak sartu zuen golari esker, hain zuzen, 1-0 gailendu zen talde euskalduna.

Lasturrek hartuko du Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola Jokoaren Lehendakari Saria



Maiatzaren 25ean Bergaran erabakiko da Bola Jokorako Euskal Federazioak antolatutako 53. Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa. Eta txapelketa horretako lehen 64 sailkatuek Lehendakari Saria jokatu dute Lasturren ekainaren 1ean.

12:00etan hasiko da Lasturko hitzordua eta, horren ondoren, sari banaketa ekitaldiak, omenaldia eta bazkaria egingo dituzte. Gipuzkoako Hiru Txirlo Federazioaren aitortza jasoko dutenetako bat Bixente Zulaika lasturtarra izango dela aurreratu dute. Zulaikaren ekimen ez berreskuratu zuten ia desagertzeaz zegoen auzoko bolatokia, eta egindako ahalegina eskertu nahi diote omenaldiarekin.

Zuzendaritza batzorde berria aurkeztuko du Amaiak Bateko urteko batzar berezian

Amaiak Bateko jakitera eman duenez, ekainaren 8an egingo dute urteko batzar nagusia; 12:00etan izango da hitzordua, Kultur Elkartearen.

Iragarri dutenez, hainbat gai eztabaidatuko dituzte batzarrean. "Aurten, ohiko puntuak lantzeaz gain, presidente berria izendatu eta zuzendaritza talde berria

aurkeztuko dugu". Jardunean dagoen taldearen iritziz, berria "oso pozgarria" da, talde berak "urte dezente" baitaramatzalanean. "Aurten, azkenean, gure lekukoa hartuko duen talde batekin ari gara lanean. Dagoeneko hasita gaude hurrengo denboraldia antolatzen. Beraz, ondo bidean, 2024-2025 denboraldirako zuzendaritza talde

berri bat izango da Amaiak Baten", aurreratu dute.

Bazkaria

Urteko batzar berezia egin ondoren, klubeko "familia" osatzen dutenek elkarrekin eta lagunartean egoteko aprobetxatuko dute eguna. "Beti bezala, aurten ere pilotalekuan elkartuko gara urte osoan Amaiak Baten bueltan gabiltzanok". Bazkari batekin agurtuko dute denboraldia. "400 lagunetik gora elkartzea espero dugu", gaineratu dute.

Maiatza / Ekaina

MAI. 18-26

GEOPARKEEN ASTEA
Egitaraua: [geoparkea.eus](#)

MAI. 24 - EKA. 2

ANTZERKI ASTEA
Egitarau osoa ale honetako 16-21 orrialdeetan.

MAI. 24 (OSTIRALA)

ZINEGOAK
19:00 Film laburren sorta.
Kultur Elkartea.

MAI. 25 (LARUNBATA)

PALA AZKARRA
Goizean Iruleak taldearen eskutik. Aldats pilotalekua.

BISITA GIDATUA
18:30 'Debatik Zumaiaara itsasontziz' (erreserbak: [geoparkea.eus](#)). Portua.

MAI. 26 (IGANDEA)

ZINEMA
19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

MAI. 30 (OSTEGUNA)

IBILALDIA
Azpeitia-Iraeta. Arbil Elkartearen eskutik.

BASTIÑUIXAN
16:30 'Zabu-Zibu' (3-5 urte). Zumardia.
17:30 'Txirrintxon' (6-9 urte). Zumardia.

HITZALDIA
19:00 'Palestina: gizatasun krisia'. Deba-Palestina Herri Ekimenaren eskutik. Kultur Elkartea.

MAI. 31 (OSTIRALA)

PAELLA TXAPELKETA
18:30 Gaztetxoei zuzendua. Estalitako pasealekua.

ELKARRETARATZEA
19:30 Euskal presoen esku-bideen alde. Foruen Plaza.

MAI. 31 - EKA. 2

CAPOEIRA TOPAKETA
Egitarau osoa: [berriketan.eus](#)

EKA. 1 (LARUNBATA)

ELKARTASUN EGUNA
Goiz osoko egitaraua Deba-Palestina taldearen eskutik.

HIRU TXIRLO
12:00 Lehendakari Saria. Lasturko bolatokia.

EKA. 2 (IGANDEA)

MAGIC TXAPELKETA
10:00 Kultur Elkartea.

ZINEMA
19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

EKA. 3 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA
12:00 Foruen Plaza.

EKA. 5 (ASTEAZKENA)

IRTEERA BAIONARA
Arbil Elkartearen eskutik.

EKA. 6 (OSTEGUNA)

HITZALDIA
11:00 'La otra historia de Sasiola' (Alex Turrillas). Kultur Elkartea.

EKA. 7 (OSTIRALA)

KONTZERTUA
19:00 Musika eskolako ikasleak. Foruen Plaza.

20:30 KulturEkin: Bidelapurrak + Pelax. Kultur Elkartea.

EKA. 7-8

DEBADABA SURF JAIALDIA
Egitarau osoa: [berriketan.eus](#)

EKA. 8 (LARUNBATA)

URTEKO BATZARRA
12:00 Amaiak Bat. Kultur Elkartea.
Ondoren bazkaria. Aldats pilotalekua.

BISITA GIDATUA
18:30 'Debatik Zumaiaara itsasontziz' (erreserbak: [geoparkea.eus](#)). Portua.

EKA. 9 (IGANDEA)

ZINEMA
19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

EKA. 12 (ASTEAZKENA)

HITZALDIA
18:00 'Haurrak eta pantailak' (Miren Ros). Burugorri gaina.

EKA. 13 (OSTEGUNA)

IBILALDIA
Deba-Sasiola. Arbil Elkartearen eskutik.

EKA. 14 (OSTIRALA)

ODOL EMAILEAK
18:30 Informazio postua. Udaletxeko arkupeak.

EKA. 15 (LARUNBATA)

DANTZA JAIALDIA
22:00 Kulunka taldearen eskutik. Aldats pilotalekua.

EKA. 16 (IGANDEA)

OMENALDIA ETA BAZKARIA
80 urte bete dituztenen omenez. Arbil Elkartea.

ZINEMA
19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

EKA. 17 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA
12:00 Foruen Plaza.

EKA. 21 (OSTIRALA)

UR PARKEA
Arratsaldez haurrentzako. Simon Berasaluze plaza.

KALEAN KANTUZ
19:30 Udaletxe azpitik.

JAIALDIA
21:30 Musika eskolako ikasleen kurtso amaierako jaialdia.

EKA. 22 (LARUNBATA)

IKUSKIZUNA
22:00 'Geurera'. Aldats pilotalekua.

EKA. 23 (IGANDEA)

ZINEMA
19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

SAN JUAN BEZPERA
22:00 Sua eta erromeria. Foruen Plaza.

Jarrai gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkarte



HURRENGO HITZORDUAK



berriketan.eus/agenda

IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekintzaren bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan ekainaren 10a baino lehen.
berriketan@zuhatza.com
943 19 13 83

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkarte	943 19 13 83
Debako Udala	943 19 28 40
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55
Udaltzaingoa	689 12 58 89
Bake epaitegia	943 19 23 53
Eguneko Zentroa	943 19 29 33
Turismo Bulegoa	943 19 24 52
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60
Kirordegia	943 19 22 62
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42
Itziarko Botikina	687 75 67 21
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90
Gurutze Gorria	943 19 10 32
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00

Haur Eskola	943 19 20 81
Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55
Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Mendata BHI	943 89 92 65
Deba Musikal	943 19 20 16
Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
KZgunea	943 02 36 29
Gaztelekua	943 19 27 62
Labide	945 16 06 00
Correos	943 19 17 99
Mankomunitatea	943 70 07 99
Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Debagesa	943 82 01 10
Euskotren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Debako Parrokia	943 19 14 97
Itziarko Parrokia	943 19 93 04

Deba

Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

PILARIK GABEKO AUDIFONOAK

PROBATU HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

ZALDUEGI
Maiatzak 27, 28, 29, 30 / Ekainak 14, 15, 16.

BURGOA
Maiatzak 31 / Ekainak 1, 2, 10, 11, 12, 13.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01
BURGOA 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:
BURGOA ZUAZO
Maiatzak 25 / Ekainak 1
ZALDUEGI
Ekainak 8 eta 15

BAAL ZENEKIEN...

...Green Day taldeak Txitxarro diskotekan kontzertua eman zuela 1994an?

Dookie izeneko diskoaren aurkezpen biraren baitan, taldea mundu osoan barrena ibili zen, baita Itziaroko Txitarro diskotekan ere. Ekainaren 4an beteko dira 30 urte kontzertu hura egin zenetik. Hala ere, ez zen Euskal Herria bisitatzeko zuten lehen aldia, aurreko kontzertu biretan Andoaingo eta Laudioko Gaztetxeetan ere egon baitziren musikariak (1991n eta 1993an, hurrenez hurren). 37 urteko ibilbidean, 75 milioi disko baino gehiago saldu ditu taldeak, eta bost Grammy sari irabazi ditu; horrela, punk-rock amerikarraren erreferentziatzko talde bihurtu da.

**SAMURAI SUDOKUA | Zailtasuna: Erdibidekoa**[illegible]

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behe,
20820 Deba

T. 943 191 774

M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

Uztailean
First-Advanced
intentsiboak
eta txikienentzako
tailerrak

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

RAIKETAK S.L. SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k kutxabank

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolkhome@gmail.com


Berriketan.eus

parte hartu
parte izan



Arteondo Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

IGARZA TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

ME ENDAÑETA muebles altzariak



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziariko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)


endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

Itziarko zerbitzuguneak **AVIA** dira orain

Deskontua
10 zentimo/litro

Deskontua gutxienez
50€ kontsumitzean

Deskontua aplika diezazuten,
aurkeztu orri hau
zerbitzugunean. Sustapen
honek 2024ko ekainaren
15era arte balio du.



Hona Club AVIaren APPa, AVIApocket

